

LEZOKO KRONIKA ZAHARRAK

IRUZUBIREN ESKUTIK

Pasko jaiak eldu ziren eta emengo eliza mutillak eliz dorrera igo ta bertatikan adierazi zuten ezkil edo joalien bitartez Pasku eguna lezo tarrantzako jairik aundienetako bat dala.

Ez ziguten guri bakarrik adierazi auzoko erriari ere berdin belarri taratu zitzaien, eliz onetako deia.

Urruti bizi diranak oitura zarraren berri badakite eta asko etortzen dira igandean amaitu zan bederatzirenen ospetzu artara; abesti gozoz edertua izan zan. Len bezala goizeko zortziretan, eta gañerako elizkizun guztiyak, berdin lengo ordutan izan ziren oitura zarrari jarraituaz; emen ez baidegu beste toki askotan bezala «A la mora» bizi nai.

Elizako abeslari talde gogor aritua zan bere saiotan ta meza nagusiya bukatu, ta geroa, ere berriz entzuteko gogoarekin gelditu gera.

Eresbatzakoak tinpiti, tanpa, ixildu gabe emen ibili dira oek ere ta dantzariyak ase artean ez dira gelditu.

Dantzako gogorik ez zeukanantzako sagardo onak geneuzkan, eta gañera egun orretarako obiak asi ziran. Arraya ere merke xamar dabil, ta dantza baño obe izan da askorentzat burrito kaskagorri aietako bat kaxuelian.

Gañerako jendientzat itai, sartari, sega, ta abar nai diña.

Ta orrela guztiyok bakoitza beren alderditik aseko genitun guzitzaz. Ez det uste etxeruntz lezotarrongatik, mu, mu, mu, marmaizean biurtuko ziñatenik, baitzikan nork bere aldetik esango du:

¡Aiek sagarduak!

¡Aiek elizkizunak!

¡Ori itzaldiya!

¡Zenbat dantza!

Naiz, uullorako, ta naiz sukalderako
obek tresnak!
eta abar.

El Día, 1930-VI-8

Emengo apaiz gazte Garbizu'tar Liborio ta Intxaurrendieta'tar Luix'ek artu dituzte Gotzai jaunak abentzako berexita zauzkan erriak. Zorionak eta Jaungoikoak eman deizutela anima asko zeruratzeko indarra.

Salaberria'tar Elias udara igarotzera etorri da bere sendira. Atariko xugaitzen itzal, ta kayeko aize prexkuak on dezaiotela.

Juan dan igandean deitu omen tzuan gure bikayoak Larrea'tar Zakarias'ek Alberdi'tar Karmen'ekin uztartu nai omen duala. Mota askotako tresna edo erremintak badituk «Xakariaz» baño korapillo ori.

Askatzen gaitz izango zaikela iduritzen zaidak. Dana dala, nere aldetik zorionak. Bauken ordu, moteil.

Donostiyak aurten sari aundiak jarri ditu arraunlariantzat, ta barea goizeko intzetara bezela bildu dira emen ere arraunlariak, treñerua putzura botata saio gogorak egin ere bai. Ez diugu Jupiter dagon tokiraño altxako baño ezin genezake esan beintzat moldakaitzak dirala.

San Pedro egunean antxen izan giñan auzoko erri maite. Pasayan. Ango eleitzako abeslariet laguntzera jua giñan geren ustez; lagundu ez dakit egin genion, baño ederki ordaindu giñuzten amaiketako aundi batekin. Eskerrik asko San Pedrotarrak.

Meza nagusiko itzaldiya Mendikute apaiz jaun gazteenak egin zuan. Biotza ikutu etzionik iñor etzan izango eliz artan. ¡Ura itzaldiya! Gu beintzat goiko ortzakin, beko españari eldu buruari eragiñaz gelditu giñann non gauden ez genakigula. ¿Nora begira egon gera gu gizon ori nor dan ezagutugabe?

Zorional Mendikute jaun kementzua; zorional milla bider. San Pedron izan giñan animan erdiyak salbatuak izango al gera itzaldi ura zala meriyoz.

«El Día», 1930-VII-5

Bein baño geiagotan ikusiko zenuten noski, neskameren bat alfonbra edo azpi-oyal bat aztintzen ari danean zenbat makilazo ematen dizkion autzak, eta kukusuak kentze arren; ba, era berean gertatzen da emengo kalegarbitzaile, ta bere astotxoekin. Egintzazute kontu, kale garbitzailea neskamea dala; bere makil ta guzi; ta astoa, azpi-oyala.

Orain nik galdetzen diot gizon orri: ¿Iñoz eta iñon, ikusi al dezu zuk kale garbitzailerik makila, laxterka, edo galopian kalia garbitzen? Nik kalez-kale, ta atez-ate, iriyaren pausoan ikusi izan ditut, orain artekoak, beste erri guzietan. Ta gauzak, orrela ezin iraun lezake, ba astoari orrenbesteko zigorkadak ematezkeru, uste det bestearentzako ere norbaitek billatu bear ko duala beste zigor bat. ¡Bai egin bear beintzat! Edo gutxinean zerbait esan.

Lobato'tar Saturnino'ren etxean semetxo bat jaio da.

Ama semeak asko ondo dagoz, ta ezdago esan bearrik gure Xatur'en poza, neurigabea dala. Zorionak.

Izparringi onetako, erdal idazkari yayoaren arreba Pilartxo, Igaitza'ri gogoz egin, ta jeikitzen asi da. Ea, bada Pilartxo; marrubi antzeko arpegi orri, etzaio olio egositakuen kolorea artutzen laga bear, ta lenbailen irten etxetik, asko poztuko gera ta.

Lopetegi'tar Joxe Mari ostatu berriya jarritzera dijua, ta kaxuelkaren exkaxirik ez degu izango. Etorriko gaituk Joxe Mari albadegu, ta bestela danak eorrek jaitzik.

1930-VIII-5 «El Día»

Ez dezute noski nere belar aundirik izango baño alaz guztiaz alper kerian oitu gabe, banatorkizute zer edo arekin. Alegia erriko jayak igaro ditugula, ta; ez, ez, ixo, gaizki esan det; Gurutze Donearen eguna, nai det esan, igaro genduala; ez bait berdiñ «Santa Krutz», eta «Santa Krutz'etako jaiak». Gurutzearen eguna izan leike erriyan batere festik egingabe nai izan ezker, eta orregatik Gurutze Donearen eguna, bat dala, eta egun orretan fetak izatea beste bat.

Orañ ezintzagun, festik egingo ez balitz, nai det esan alakorik gertatu ezker, norbaitek esango lukela alegiya: «¿Au alda Madrid txikito deitzen dioten erriya? Idekotasun edo konformidadean, etzeok Madrid'en zer ikust aundirik». Baño, esan dezatela, ni ortara, baizik esatera nola irakurri nuan izparringi batetan, «Gurutze Donearen» egunean egiten diran elizkizunak, zergatik egiten diran beko elizan, eta nola ez goikoan arren aundiya izanta, ¡Ori alia! Tolosa'ko San Blas, Andoain'go San Roke Asteasu'ko Santa Marina, Urkiola'ko San Antonio, ta abar, ¿oietara zergatik uaten ote dira orrenbeste bidean mendi tontorretara, kalian eliza galantak izakita? ¿Burutik eginta juaten ote dira? Ez; egunai ala dagozkiolakoz igotzen dira goi, goiko ermitetara naiz ta kaleetako elizetan naiko tokiya izan. San Antonio egunean, Urkiola beaz, San Bas'etan Tolosa'ra; San Juan'etan, goiko elizara, eta Santa Krutz'etan beeko elizara. Baita eliza askotan txikiagua-balitzake ere, elizkizun oiek beko, edo «Gurutze Donea'ren» elizatxoan egin bearrak dirala derizkiot. Polita izango litzateke malen'etan Oyartzuna, San Exteban'etan Altxa'ra ta San Pedro'tan, San Juan'ara ibilli bear bagenu, ta len erdipurdi bizi bagera, orduantxe bai izango litzateke erabat atzekoz aurrera bizitzia. Geiago jakin nai izan ezker, baditu eltza amak erantzuten jakingo duten jakintsuak.

Estropadak. Gure arraunlariak, Bilbao'ra juanak ziran beren kementsuna erakustera: atzo burruka gogorra jo ondoren, azkenak iritxi zirala jakindu genduan. Jakina, erreminta, edo tresna guztiya, beti berri tan zorroztera eraman izan bear ba, berriya izan arren ezda zorrotza izaten eta emen ere au gertatuko zan; treñero berriya, bañan tripulaziokamotza, ta urik ezin ebaki. Ez nua geiago ezer esatera.

Gaixorik —lengo egunean, Lezo'ko erdal idazkitxoan irakurriko zenduten Onsain'dar Ramon nola gaxorik arkitzen zan, ba, geroztik onera, aurrerapen txikiya izan du, bañan dan pixarra onerakua; ea Ramon besterik ez bada atari alderaño len bailen irten.

—Arriaga'tar Felix'en alaba ere gaizkitu eginda oster.

—Gure lagun Ixidoro'ren ama era

berian arkitzen da, elizakoak eginda.

Egin bedi zure borondatea, zeruan bezela lurrean ere.

«El Día», 1930-IX-27

Itxaso zabaletik, itxas ertzeko arri bizitara, olatuak puskatzeko dakarren zaletasuna bezin biziya zeukaten Gipuzkoako Luistarrak' Itziar'ko Ama Birjina ikusteko, ta berak ikusirikan gazte onen biotzak ain bero arkitzen zirala, guztiok eman zien egun pozgarri ori, osasunez beteta eguraldi on batekin ill onen, 12'an

juan dan igandean. Oiartzun'dik 30 mutil izantziran, ta juan dan as- teko «Argia» irakurri badezute iku- siko zenduen beste zenbat erritatiek juan diran, batzutatik danak, bes- tetatik geienak... ¿eta Lezo'tik? ¡Au lotsa! Bañan ari naizen ezkerro esan egin bear. ¿Zenbat? Zezenak baño sasoi ohea daukaten 230 mutile- tarik irunun! Bordatxora joan bea- rra izan bazuten ¿ez ote ziran gero bilduko? Nik balere uste, bañan orrelako gauzetarako, Lezotarrak atsuak prozesiyuan bereiz izan ge- ra: beti atzetik Eguzkiak inon baño ikerpen edo bixita geiago izaten du txoko onetan, baña alaz guziaz biotz oiek ezin geixiako berotu, beti «Ipar bubu» edo «Polo norte»n be- zela, otzak.

Mama goxua. — Gezala'tar Xixilio'k mama goxua asi digu «Txerri muño sagardotegian; jai eta aste, upel gaxoa jiponduez jende asko dabil, baña upelekoak uste det berari aundiagoa ematen dio- tela.

Eriotza. — Garmendia'tar Etxeban'ek amasei urteko seme bat zeukan gaxorik, bañan Jaungoikoa erru- kitu, ta joan da igandean Beregana deitu zion. Beti, betiko, bere alboan izan dezala.

Oiartzun'go Pilipa'ri. — Irakurri nituan Pilipa zure goxozko lerrotxoak, ez bein bakarrik, iru aldiz. Joan dan igandean uste nuan artuko zenduala nere eran- tzuna, bañan ainbesteraño txoratu nintzan non nere idaztitxoa bialdu nuan zuzenbiderik gabe ta jakiñá ostea eskutara biurtu zidaten. Esaten nizun zuk diozun moda berri ori ez ateratzeko, bestela bat edo batek esango dizula «Ama: ni bero». ¿Ez ote zaizu bat edo-bat agertuko Oiartzunian ezin bada ere Errenderi, aldexio? Ja, jai, ¡ja arrapatu!

Azpeiti'ko J.M. Elias'eri. — artu ditut zure goraintziak nere lagunaren bitartez. Eskerrikasko, ta idatzi etxera lengo tokian bizi naiz ta. Agur.

«El Día», (1930-X-18)

— DANIEL GARBIZU SALABERRIA «IRUZUBI» —
«El Día». (1930)

